

INGURUMENA

48370 BERMEO  
BIZKAIA

Erref.: 2021/IDA\_DEK0701

## JAGOKON SAILARI BARNE KOMUNIKAZIOA

2021/04/26(e)(a)n **2021 - 000001216** zenbakia daukan ALKATETZA DEKRETUA onartu dala jakinarazoten deutsu(e)t:

Xedea

Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eraketa onartzea eta funtzionamendu arauak ezartzea.

### Aurrekariak

Bakarra: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legeak xedatutakoari jarraituz, Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eratu beharra dago.

### Argudioak

Lehenengoa: Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legearen xedea da, energia-politikaren joera orokorra kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan eta sektore pribatuan jasangarritasun energetikoaren arau-oinarriak ezartzea, eta batzuek eta besteek zer eginbehar eta betebehar dituzten antolatzea. Batez ere, energia-aurrezpeneko eta efizientzia energetikoa izateko neurriak bultzatzera bideratuko dira eginbehar eta betebehar horiek, bai eta energia berriztagarriak sustatzera eta ezartzera ere.

Legearen 9.1 artikulua xedatzen du Lege honek lortu nahi dituen helburuak bete daitezela, administrazio bakoitzeko erakundeak koordinatzeko, jasangarritasun energetikoaren batzorde bana edo izan daitezkeen eta antzeko ezaugarriak eta zereginak dituzten erakundeak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, lurralde historikoetako administrazioek eta udalerrietako administrazioek.

Legearen 9.1 artikulua araberan, administrazio bakoitzak erabakiko du bere batzordeak zer kide eta funtzionamendu izango dituen, eta betiere emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatu bermatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7 eta 23. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

Bigarrena: Hori horrela, Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea eratu behar dago, jarduera Energetikoko Unitate (energia kontsumitzen duten udal antolakundearen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/04/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/04/2021  
19:11:13

DOCUMENTO: 20210426987

Data: 26/04/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1



barruan energia kudeatzeko eta gastatzeko gaitasuna duten unitateak) diren udal sail eta erakundeen arteko beharrezko koordinazioa gauzatzeko.

Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eraketa eta funtzionamendu arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa arautzen duen 40/2015 Legearen II. Kapituluko 3. Sekzioan jasotako arauak jarraituz ezarriko dira.

Batzorde honen eraketak Udalaren antolaketaren eremuari eragiten dion heinean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 25.7 artikuluari jarraituz, alkateari dagokio onartzea.

## Erabakia

Guzti hori kontutan hartuta, honako hau erabaki da:

**LEHENENGOA:** Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordearen eraketa eta funtzionamendu arauak onartzea:

### Definizioa eta izaera:

Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordea organo aholku-emailea da jasangarritasun energetikoaren arloan, eta jasangarritasun energetikoko politikekin lotutako gaiak landuko ditu.

Bermeoko Udaleko Jasangarritasun Energetikoaren Batzordeak txosten eta proposamen funtzioak baino ez ditu garatuko, eta ez dira inola ere lotesleak izango.

Batzordeak, dagozkion organoen bidez, energia jasangarriaren arloko erabakiak hartzea proposatuko du.


### Funtzioak:

Jasangarritasun Energetikoaren Batzorde honen eginkizunak dira, bere eskumenen esparruan:

1. Eraikinen, ibilgailu-parkearen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioa onetsi dadin proposatzea, legearen 11. artikuluan ezarritako edukiarekin.
2. Lege hau betetzeko hartzen diren neurriak gauzaten ari direla eta legean ezarritako helburuak betetzen ari direla gainbegiratzea eta bermatzea.
3. Udalaren Energia Jarduketarako Planari oniritzia ematea, organo eskudunak plana onartzearen eta planaren garapena gainbegiratzearen kalterik gabe.
4. Energia-jarduketan plana zer egoeratan duten eta zenbat garatu den adieraztea aldi berean.
5. Mugikortasun Planaren diseinuan parte hartzea.

### Osaera:

Bermeoko Udaleko jasangarritasun energetikoaren Batzordea kide hauek osatuko dute, eta hitza eta botoa izango dute:

	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1</p>	<p style="text-align: center;"><b>Sinadurea eta data</b></p> <p style="text-align: center;">JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/04/2021 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/04/2021 19:11:13</p>	<p>DOCUMENTO: 20210426987</p> <p>Data: 26/04/2021 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
--	---	---	--



- a) Batzordeburua, Hirigintza, Obra eta Ingurumeneko zinegotzi delegatua izango da.
- b) Zerbitzu saileko teknikaria
- c) Urigintza saileko teknikaria
- d) Berualako zuzendaria
- e) Kirol Patronatoko zuzendaria
- f) Idazkaria, Ingurumeneko teknikaria izango da.

Hala eskatzen duten gaietan, udaleko zinegotziek edo teknikariek parte hartu ahal izango dute Batzordearen batzarretan, baina ez dute boto-eskubiderik izango.

### Idazkaritzaren funtzioak:

Batzordearen Idazkaritzarako izendatutako pertsonaren eginkizunak dira:

1. Batzordearen bilerak prestatzea.
2. Bileren deialdiak egitea, lehendakaritzarako izendatutako pertsonak proposatuta.
3. Batzordeko kide izendatutako pertsonen komunikazio-egintzak, jakinarazpenak, gai-zerrendarako proposamenak, datu-eskaerak eta, oro har, Batzordearen funtzionamenduari zerikusia duen edozein dokumentazio edo komunikazio jasotzea.
4. Gaiak prestatzea eta bileren aktak idaztea.
5. Hartutako erabakien ziurtagiriak egitea.
6. Idazkari izateari datxekion beste eginkizun guztiak.

### Batzordeburuaren eginkizunak:

Batzordearen Batzordeburu izendatutako pertsonaren eginkizunak dira:

1. Organoaren ordezkaria izatea.
2. Bilkuretarako deialdia egitea eta gai-zerrenda finkatzea.
3. Bilkuretako buru izatea eta eztabaiden garapena moderatzea.
4. Berdinketak bere botoarekin ebaztea, erabakiak hartzeko.
5. Batzordeburua izateari datxekion beste eginkizun guztiak.

### Deialdia:

Batzordeburuak deituko ditu Batzordearen bilkurak, gai-zerrenda baten bidez. Gai-zerrenda horretan, bilera horretan aztertu beharreko gaiak zehaztuko dira.

### Bilkurak:

Batzordeak gutxienez urtean bitan egingo ditu ohiko bilkurak.

Batzordeburuak egoki deritzon egongo dira ohiz kanpoko bilkurak, bere edo edozein batzordekideren ekimenez.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/04/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/04/2021  
19:11:13

DOCUMENTO: 20210426987

Data: 26/04/2021  
Lekua: Bermeon  
Erregistro unidea: Erregistro nagusia

CSV: 07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1



Batzordea balio osoz eratzeko, bilerak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, gutxienez kideen erdiak parte hartu beharko dute, eta, tartean, ezinbestean, batzordeburuak eta idazkariak egon beharko dute.

Bilerak presentzialak edo telematikoak izan daitezke.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira.

### Aktak:

Batzordearen bilera bakoitzaren akta laburra egingo du idazkariak, eta kide guztiei jakinaraziko zaie, hilabeteko epean haien adostasuna edo zuzenketa egin dadin.

Aktan, gutxienez, honako gai hauek jaso beharko dira:

- Bileraren lekuaren eta denboraren inguruabarrak.
- Bilerara joan diren pertsonak.
- Gai-zerrenda.
- Eztabaiden puntu nagusiak.
- Hartutako erabakien edukia.

Aktak Batzordearen hurrengo bileran onartuko dira.

**BIGARRENA:** Interesdunari erabaki hau jakinaraztea.

**HIRUGARRENA:** Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen barri ematea.

Honen guztiaren barri emoten deutsu(e)t jagokozan ondorioetarako.

**Oharra:** sinadurea eta data orri-oinean .



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 26/04/2021  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 26/04/2021  
19:11:13

DOCUMENTO: 20210426987

Data: 26/04/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia

CSV: 07E5000683EB00D3Z9H8T0D4E1

